

Purplewashing ➔ emakumeontzat benetako berdintasun ✚

Purplewashing edo **zuriketa feminista**: enpresen eta gobernuen irudia garbitzea emakumeon eskubideen izenean. Ingelesez hitzak ukitu moderno eta erakargarria izan dezake. Baina kontuz! gobernu eta patronalek borroka feministak indargabetzeko erabiltzen duten mekanismo bat besterik ez da; propaganda asko erabilita, hori bai. Haatik, ez da *cool* ezta modernoa ere greba egitea edo enpresa eta herri-botereekiko konfrontazioa.

Gipuzkoako Aldundia purplewashing-aren adibide garbia da: feministatzat dauka bere burua baina eguneroko politiketan emakumeen eskubideen aurka aritzen da. **Galdetu, bestela, Gipuzkoako zahar-etxeetan 200dik gora egunez greban dauden emakumeei**. Erraz esaten da.

Aurten ere badator **Martxoak 8**, eta honekin batera, diskurtso instituzionalen parte diren **marketing eta propaganda feminista**, kalean egunero borrokan diharduten emakumeen errealitateetatik oso urruti daudenak, alegia.

Emakumeoi inoiz ez digute eskubiderik eta hobekuntzarik doan eman, ez dira opariak izan.

Greba egiten dugun langileok **emakume gaiztoak** gara; gure betiko rolak apurtuz, ustezko bake sozialaren aurka goaz eta gure agintariak kosta ahala kosta defenditzen duten ongizatezko oasia hankaz gora jartzen dugu. Interes orokorraren ordezkari beharko luketenean argi utzi dute hori.

"Erresidentzietako langileen eskariak onartzea ezinezkoa da, eta sistema itota utziko luke", esan du berriki Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak.

Badakizu zer den benetan itogarria, Olano jauna? **Lan eginda ere gutako asko mileurista izatera heldu ezinik bizitzea, edota pertsona bat altxatu, garbitu, jantzi eta pixoihalak 15 minutuan aldatu behar izatea**, zuk 2020an soldata %8 igoko duzula ezagutu ostean (86.078,72€ urtean).

Itogarria ere bada zaintza sistema emakumeen prekaritatean oinarritzea,

sistema privatizatuz erresidentzietako emakumeengan %30eko soldata arrakala sortzea eta hau ontzat ematea.

Nahi izanez gero, egoera hau irauli dezakete sektorearen %90 finantzatzen dutelako.

Erresidentzietako langileak, garbitasunekoak, etxez-etxe laguntzakoak... Herri honetako milaka emakume langile egunero ari gara borrokan, gure lantokietan eta kalean.

Gure borroka emakume guztionak eta jendarte osoarentzat dira. Ez ditzatela bereganatu edo saldu; ez gaitzatela saldu!

Kalean jarraituko dugu gure lan eta bizi baldintzen benetako hobekuntza lortu arte!

GIPUZKOAKO ERRESIDENTZIAK BORROKAN!

GORA BORROKA SINDIKAL FEMINISTAK!

GORA EMAKUMEON BORROKAK!

La Diputación Foral de Gipuzkoa se presenta como feminista pero sus políticas del día a día atacan los derechos de las mujeres. Que se lo pregunten a las trabajadoras de las residencias de Gipuzkoa, en huelga desde hace más de 200 días.

"Aceptar las peticiones de las trabajadoras de las residencias es insostenible y dejaría al sistema ahogado", dice Markel Olano, diputado general de Gipuzkoa.

Lo que es insostenible, señor Olano, es que más de un tercio de las trabajadoras no lleguen ni a mileuristas; levantar, asear, vestir y cambiar pañales en 15 minutos; atender entre dos auxiliares a 140 residentes por la noche o cobrar 6.000 euros menos por ser mujeres. Todo ello mientras leemos en los medios que usted cobrará en 2020 un 8% más que el año anterior, es decir, 86.078,72€.

!Seguiremos en las calles hasta dignificar el sector!

#ErresidentziakBorrokan

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

**GIPUZKOAKO ERRESIDENTZIAK
BORROKAN!!**

Markel Olano:

"Aceptar las peticiones de las trabajadoras es insostenible y dejaría el sistema ahogado"

"Aldundiak berdintasun politiken aldeko apustua egiten du, ekonomia, zaintza eta indarkeria matxistaren kontrako borroka ardatz izanik"

Es **insostenible**:

- Que más de un tercio de la plantilla no llegue ni a milleurista.
- Ganar 6.000 euros menos por ser mujeres.
- Levantar, asear, duchar, vestir, y cambiar pañales en 15 minutos.
- 2 auxiliares por noche para 140 residentes.

"**Ezinezkoa da** berdintasunaren alde egitea %90ean finantzatzen duzun sektorean emakumeek %30eko soldata-arrakala izatea onartzen duzun bitartean"

GIPUZKOAKO ERRESIDENTZIAK BORROKAN!!

#ErresidentziakBorrokan

ELA
EUSKAL SINDIKATUA